

Assises de la

**35<sup>es</sup>** Traduction  
à Arles LITTÉRAIRE

09-10-11 **NOV**  
2018

Traduire  
le **TEMPS**

© Gilbert Garcin / Camera Obscura

**Dimanche 11 novembre • 10h45 > 12h45**

Espace Van Gogh



Atelier basque > français

animé par **Jean-Pierre Minaudier**

*Va en enfer, chérie !* d'Anjel Lertxundi  
Alberdania ediciones, 2012

## Zoaz infernura, laztana! (Anjel Lertxundi): incipit.

Larrialdei aurre egiteko balio zigun tabernak, gure diru-poltsan ez zegoen tokia besterik, berorrek badaki, Jauna, batzuk larrialdian bizitzeko jaiotzen garela, eta autobidea egin zutenean eta jakin nuenean taberna ondoko gasolindegi zaharra itxi behar zutela, nik hari heldu nahi, eta Tomasi esan nion, alokairuan hartuko dugu, herriko batzuk etorriko dira behintzat, eta Tomasek niri, ez al digu lan gehiegi emango?, baina nik alde on hori zuela, nahi genuenean itxi, nahi genuenean zabaldu, uzteko nire esku, eta eskatu nion jotzeko mesedez Por soñar lo imposible, eta Tomasek gustura jo zuen, baina haren ahoko soinua gustatzen zitzaidan niri / eta ez ahoa, haren ezpainak beti zeuden-eta lehorrak, eta harmonika jotzen hasten zenean, mingaina pasatzen zuen ezpainetik behiek hausnar ondoko lerdeak kentzeko bezala, elkarrekin egoten ginen aldiro ahoko soinua ateratzen zuen patrikatik, eta begi-keinu bat egiten zidan, eta gero beti jotzen zuen pieza bera, nik batzuetan lagundu ere egiten nion kantatuz eta horrela, baina ni ez naiz oso trebea kanturako, eta amak esaten zidan, herdoildutako txirrita bat dirudin, makina bat aldiz entzun behar izan nion hor, baina nik sentimentu handia jartzen diot Por soñar lo imposible jotari, neuk esatea bete-betekoa ez bada ere, eta poliki irteten zitzaigun saioa, Tomasek esaten zidana, aingeruan modura ateratzen zaizu, ezta mojek ere hain ezti, eta laster egin ginen nobio, harritu egingo zaio berorri, baina ahoko soinua eraman ninduen aldarera, eta elizan sartzerakoan organoa hasi zenean Por soñar lo imposible soñé que me querías jotzen, negar-zotinka lehertu nintzen ni tuntunantoni bat bezala.

Lehioetako pertsianek kanpoko argia moteltzen dute, ilunpe halako batek hartua du logela. Matrimonio-ohe batean, berrogei urte inguruko gizon kaskail bat dago etzanda, begiak itxita eta gerritik gora biluzik. Ohearen bi alboetako mahaitxoetako batean, harmonika bat. Argi motelduak, aldian behin, distirak eragiten dizkio harmoni-karen estalki zuri nakarrezkoari.

Dutxa baten hotsa entzuten da hurbil samarrean. Tomasek begiak zabaltzen ditu. Begiradaren parez pare, bainugelako atea dago irekita. Emakume biluzi baten silueta erdi nabaritzen da dutxako gortinen artean. Mugimenduengatik, xaboia kentzen ari dela esan liteke. Handik gutxira, gortinak korritzen ditu. Emakume deigarri bat, Tomas baino gazteagoa, irteten da askatik. Xukadera hartutik, Rosa lehertzen hasten da; bularrak lehendabizi, alua segidan. Oso astiro egiten ditu mugimenduok, emeki, plazera bilatuko balu bezala igurtzaldi bakoitzean. Xukaderarekin alua lehertzen ari delarik, burua jiratu eta Tomas dagoen aldera begiratzen du.

Tomasen eta Rosaren begiradek triki egin behar zuten unean, Tomas begiak ixten ditu. Rosak ez du zirkinak ikusteko astirik izan, baina irribarretxo ateratzen zaio.

Gorputza bainu-zapiarekin estalirik, logelara doa.

Tomasek begiak itxita jarraitzen du. Izerditan dago.

Rosa ohe ertzean erdi etzaten da, eta bere gorputza gizonarenera hurbiltzen du. Eskua pasatzen dio gerritik, bular aldeko ile sarriak kiribiltzen dizkio hatz puntarekin, mingaina pasatzen dio ezkerreko titiburuaren inguruan. Gizonak besoak zabaltzen ditu, soseguz dago eta Rosari nahi duena egin dezan uzten dio.

Emakumeak jokoarekin segitzen du, hitzño atseginak esaten dizkiolarik.

Tupustean, ordea, Tomasek erreakzionatu egin du eta, modu bortitz batez, ema-ku-mea hartzen du eta musukatzen hasten zaio. Rosa aurpegia apartatzen du pixka bat, eta, irribarrez, eskua pasatzen dio masailean:

Triku batekin ari naizela ematen du, diotso emakumeak belarrira.

Goizean kendu dut-eta bizarrra! kexatzen zaio gizona.